

# Eskolako Agenda 2030

Eskolako Agenda 21ek Europa mailan ezarritako hainbat erronka berri hartu ditu bere baitan Eskolako Agenda 2030 bilakatuz. Ikastetxearen eta inguruaren jasangarritasunaren eta kalitatearen alde, hezkuntza komunitateak aurrera eramaten duen konpromiso eta ekintza-plan bat da.



## UNESCO-ko Garapen Iraunkorreko helburuak (GIH) 17+1



1. Pobreziaren amaiera	2. Zero gose	3. Osasuna eta ongizatea	4. Kalitatezko Hezkuntza	5. Genero berdintasuna	6. Ur garbia eta saneamendua
 > "Eguzki Zuri": > <b>BOLUAKAITZA</b> > Janari bilketa > "SOS Afrika": Arropa bilketa > Han eta Hemen proiektua	 > Jangela zerbitzua > Janari bilketa > Korrika solidarioa > Han eta Hemen proiektua	 > Jangela zerbitzua > Janari bilketa > Odola ematea (irakasleek) > Korrika solidarioa > BARNETIK: Barnekotasun proiektua > Beldur barik ekimena > Agenda 30 (elikadura osasuntsua, gosaria, fruta eguna, urtebetetzeak) > Baso magikoa	 > Irakurle lagun > Konfiantzaren pedagogia > Baso magikoa > Kafe tertulak > Esperimentazio talerrak > PERTSONAK BALDAN proiektua > ELKARTASUN proiektua > ORAINDIK ATZO: Memoria historikoa > KIVA	 > Inspira <del>50000</del> > Hezikidetze programa > Patioan denok jolasten dugu > GUGAN proiektua > ETIKASI ekimena > KIVA > Jolas hezi > IRAES sarea	 > Agenda 30: Uraren erabilpena
7. Energia eskuragarri eta ez kutsatzailea	8. Lan zintzoa eta ekonomia hazkuntza	9. Industria berrikuntza eta azpiegitura	10. Desberdintasunak murriztea	11. Hiri eta komunitate iraunkortasunak	12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsua
 > <b>LED</b> argiteria > Agenda 30: Erosketa berdea	 > Agenda 30: ZIZARE proiektua: Konposta	 > Eraikuntzako obrak > Agenda 30: Erosketa berdea	 > Patioan denok jolasten dugu > KIVA > Hezikidetze programa	 > Baso magikoa > Zumaia ezagutzen > Kafe tertulak > ETIKASI ekimena > Han eta Hemen proiektua > "Eguzki Zuri": > <b>BOLUAKAITZA</b> > Agenda 30: ZIZARE proiektua: Konposta	 > Jangela zerbitzua > Janari bilketa solidarioa > Agenda 30: ZIZARE proiektua: Konposta
13. Klimaren aldeko ekintza	14. Itsas azpiko bizia	15. Lehorreko ekosistemetakoa bizia	16. Bakea, justizia eta instituzio sendoak	17. Helburuak lortzeko itunak	18. Euskara eta kultura aniztasuna
 > <b>SUCUDEL</b> > Agenda 30 > IRAES sarea	 > <b>SUCUDEL</b> > Agenda 30 > IRAES sarea	 > Agenda 30 > Baso magikoa	 > "Eguzki Zuri": > <b>BOLUAKAITZA</b> > "SOS Afrika": Arropa bilketa > Han eta Hemen proiektua > Odola ematea (irakasleek) > Hezikidetze programa > Patioan denok jolasten dugu > GUGAN proiektua > ETIKASI ekimena > KIVA > Bakearen eguna	 > Caritas > <b>SUCUDEL</b> > San Juan egolza > Eskola Jasangarria ziurtagiria	 > Irakurle lagun > Patioan denok jolasten dugu > Bertsolaritza > Euskal festak ospatzea

Eskolako Agenda 2030ak ikasleei beren ingurumen hurbilaren arazoak aztertu eta ulertzea ahalbidetzen die eta hiritar gisa bidezkoagoa eta ekologikoki jasangarriagoa izango den gizarte baten alde aritzeko prestatzen ditu.

### Eskolako Agendaren funtsezko oinarriak:

- Ikastetxea ingurumenaren aldeko praktika baten eredu bilakatu.
- Ikasleak herritar parte-hartzaileak izaten ohitu.
- Ikastetxeko eta inguruko gizarte eta ingurumena aztertzea eta hobekuntzarako proposamenak eta aldizkatzeak martxan jarri.
- Ikastetxeko eta herriko jasangarritasunaren aldeko erabakiak hartzeko egitura bat sortu eta akordioetara iritsi.

- Herriko Agenda 2030an parte hartu.

Ikasturte hasieran gaiarekiko sentsibilizazioa egiten da eta ondoren, ikasturtean zehar, bi diagnosi aurrera eramaten dira: bata, eskola mailan eta bestea, herri mailan. Hauek egin ondoren hobekuntzarako proposamenak eta konpromisoak, Eskolen arteko forora eramaten dituzte ikasleek.

Bukatzeko, hartutako erabakiak eta adostutakoa, Udaletxeko zinegotziei, herriko partaideei eta eskola komunitateari jakinarazten zaie. Horrela ikasleek egindako diagnostikoan oinarrituta Udalak behar diren neurriak hartu ditzake.

Bestalde aipatu behar da, Eskola Jasangarriaren ziurtagiria duela gure eskolak. "Eskola Jasangarria" agiriarekin Eskolako Agenda 30 programan nabarmentzeko esperientziak dituzten eskolak goraiatu nahi dira. Beraien lana, prozedurak, esperientziak eta, azken finean, eskolaren hezkuntza, partaidetza eta jasangarritasun kalitatea errekonozitzen da. Zumaiena 12 urte daramagu ziurtagiri honen jabe izaten era IRAES 21 sarea osatzen.